Caritas Gipuzkoa

23 de marzo de 2025

UNA VIVIENDA

PARA LA ESPERANZA

¿Quieres conocer la historia de Santi?

Santi llegó a Caritas en 2011. Tras una separación traumática y la pérdida de su empleo, terminó en la calle. No tenía red de apoyo, ni un lugar donde refugiarse.

Después de casi dos años sobreviviendo en la calle, un día encontró sus pocas pertenencias quemadas entre los arbustos. Ese día decidió pedir ayuda. En Caritas halló un lugar donde empezar de nuevo. Accedió a **Aterpe**, donde, además de un techo, sintió el apoyo emocional que necesitaba.

Con el tiempo, Santi ingresó en el taller ocupacional **Lamorus** y fue recuperando la rutina que había perdido. Dos años después, entró al centro residencial **Trintxer-Emeki,** lo más parecido a un hogar que había tenido en mucho tiempo. Trabajando con el equipo de educadoras del centro, Santi fue reconstruyéndose, superando miedos y dejando atrás el alcohol. Hoy en día, incluso, **colabora como voluntario en Caritas.**

Después de 13 años de lucha y esfuerzos, Santi siente que está preparado para vivir de manera independiente. Pero hay un obstáculo que amenaza con echarlo todo por tierra: **no encuentra un piso de alquiler accesible.** Santi no dispone de ahorros para hacer frente a tres meses de fianza, tampoco de un contrato estable, ni de alguien que le avale.

Pero Santi no es el único que enfrenta esta situación de exclusión,

aquí, en Gipuzkoa…

Mariame llegó de Guinea hace 17 años con su marido. Han trabajado sin descanso, casi siempre en condiciones precarias: sin contrato, por horas, por debajo del salario mínimo. Criaron a sus dos hijas aquí, pero ahora su casero necesita el piso para su hijo y deben marcharse. Tras 10 meses buscando, siguen sin encontrar una alternativa que puedan pagar. Con el futuro de su hija mayor en la universidad, **la única opción que encuentran es volver a emigrar.**

Gaizka cayó en el consumo de drogas en su juventud. Un día, aceptó llevar un paquete a través de la frontera y terminó en prisión. Ha cumplido su condena y **ha dejado atrás ese mundo, pero, sin alternativas, se ve obligado a volver a casa de su madre.**

Nekane pasó años en un centro residencial tutelado tras varias crisis psiquiátricas. Sus padres fallecieron en ese tiempo, y aunque **podría vivir de manera independiente con los apoyos adecuados,** sigue sin encontrar una vivienda donde empezar de nuevo.

Las barreras en el acceso a la vivienda impiden a muchas personas mantener la esperanza

…

¿Por qué te contamos la historia de Santi?

Porque un hogar es mucho más que cuatro paredes. **Un hogar es un lugar de estabilidad, de refugio, dignidad y esperanza.** Es el lugar donde las familias crecen y desde donde las personas proyectan su futuro. Es por ello por lo que este mes de marzo, Caritas Gipuzkoa, la Pastoral de la Salud y la Pastoral Penitenciaria hemos elegido el lema "Una vivienda para la esperanza".

2025 es el **Jubileo de la Esperanza** y, tal y como recuerda el papa Francisco "Debemos mantener encendida la llama de la esperanza que nos ha sido dada, y hacer todo lo posible para que cada uno recupere la fuerza y la certeza de mirar al futuro con mente abierta, corazón confiado y amplitud de miras". Y continúa, "todo esto será posible si somos capaces de recuperar el sentido de la fraternidad universal, si no cerramos los ojos ante la tragedia de la pobreza galopante que impide a millones de hombres, mujeres, jóvenes y niños vivir de manera humanamente digna". **Garantizar el acceso a la vivienda es, por tanto, una cuestión de justicia, dignidad y fraternidad.**

Sin embargo, para muchas personas (entre otras, Santi, Mariame, Gaizka o Nekane) este derecho se ha convertido en un lujo inalcanzable. **Hoy en Gipuzkoa, cientos de personas viven con la angustia de no encontrar una vivienda accesible.**

En el segundo semestre de 2024, la renta media de los contratos de **alquiler** en Gipuzkoa fue de **1.069,5 euros/mes** (Eustat)

El precio medio de **compra** de vivienda libre en Gipuzkoa en el tercer trimestre de 2024 fue de **3.586,18 €/m²** (Eustat)

Como consecuencia, el acceso a **la vivienda es la principal preocupación para el 50% de la ciudadanía de Gipuzkoa,** por encima del desempleo y la precariedad laboral, según señala el último Sociómetro elaborado por la Diputación Foral de Gipuzkoa. Así las cosas, **¿qué opciones reales tienen las personas en situación de exclusión social de acceder a una vivienda?**

El 84% de las personas atendidas por Caritas en Gipuzkoa son migrantes, una realidad que las sitúan en una situación de vulnerabilidad extrema en el acceso a la vivienda ya que, si se encuentran en situación administrativa irregular, no pueden acceder a un contrato de trabajo que les dé acceso a un alquiler. Tampoco disponen de una red de apoyo que pueda darles soporte. Además, habitualmente trabajan en condiciones precarias, con mayor temporalidad y salarios más bajos. Una situación más acusada en el caso de las mujeres migrantes, que habitualmente se emplean en el sector de los cuidados.

A la luz de estos datos, la Pastoral Sociocaritativa comparte una de las principales conclusiones de la II Estrategia Vasca Contra la Exclusión Residencial Grave 2024-2028, y es que **las dificultades de acceso a la vivienda constituyen un factor esencial de exclusión social en Euskadi.**

Antes esta situación, **la comunidad cristiana está llamada a construir una sociedad más justa, donde ninguna persona quede excluida del derecho a una vivienda digna.** En esta Cuaresma, Caritas Gipuzkoa, la Pastoral de la Salud y la Pastoral Penitenciaria te invitan a mirar la realidad con los ojos del Evangelio y a comprometerte con quienes más lo necesitan.

Únete, sembremos esperanza.

...

¿Qué proponemos?

A LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS

✔ **Incrementar el parque público de alquiler asequible**

El Plan Director de Vivienda 2021-2023 del Gobierno Vasco se propuso **aumentar en más de 3.000 las viviendas de alquiler protegido**, alcanzando un total de 29.300 hogares al finalizar 2023. Es esencial evaluar los logros de este plan y, de ser necesario, intensificar los esfuerzos para ampliar aún más la oferta de viviendas asequibles.

✔ **Facilitar garantías para personas con bajos ingresos**

La II Estrategia Vasca contra la Exclusión Residencial Grave 2024-2028 aborda la **prevención de desahucios y promueve el acceso a la vivienda para colectivos vulnerables**, incluyendo personas con bajos ingresos. Se insta a implementar medidas efectivas que aseguren que estas personas puedan acceder a una vivienda digna sin obstáculos insalvables.

✔ **Regular los precios del alquiler para evitar sobrecostes**

La declaración de zonas de mercado residencial tensionado, como la reciente iniciativa en Donostia, permite aplicar **medidas de control y estabilización de precios**. Es crucial que estas regulaciones se implementen de manera efectiva para proteger a los inquilinos de incrementos abusivos en los alquileres.

✔ **Fomentar el alquiler social y la cesión de viviendas vacías**

Programas como Bizigune buscan **movilizar viviendas vacías** para destinarlas al alquiler social. Se recomienda fortalecer e incentivar estas iniciativas, facilitando la colaboración entre propietarios y administraciones para aumentar la disponibilidad de viviendas asequibles. Estas acciones, respaldadas por las políticas y estrategias del Gobierno Vasco, son fundamentales para abordar la crisis habitacional y garantizar que todas las personas en Euskadi tengan acceso a una vivienda digna.

A LA SOCIEDAD: ¿QUÉ PUEDES HACER TÚ?

✔ **Informa y sensibiliza**

Comparte esta realidad para **generar conciencia** y rechaza los bulos y la información falsa.

✔ **Si tienes una vivienda vacía, dale vida**

Alquila con garantías a través de programas sociales.

✔ **Súmate al cambio**

Exige políticas de vivienda justas y accesibles para todas las personas.

✔ **Colabora con la Pastoral Sociocaritativa**

Con tu ayuda, podemos seguir impulsando **soluciones reales desde Caritas, la Pastoral de la Salud y la Pastoral Penitenciaria.**

23 de marzo de 2025
www.caritasgipuzkoa.org
UNA VIVIENDA
PARA
LA ESPERANZA
SANTI
está listo para
retomar su vida tras
13 años de dificultades.
Pero a pesar de los esfuerzos
realizados, su pasado lastra
su acceso a un alquiler.
Caritas
Gipuzkoa
Espetxe Pastoraltza
Donostiako
Elizbarrutia
Diocesis de
San Sebastián
Pastoral Penitenciaria

Caritas Gipuzkoa

2025eko martxoaren 23a

ITXAROPENA IZATEKO

ETXEBIZITZA

Santiren istorioa ezagutu nahi duzu?

Santi 2011n iritsi zen Caritasera. Banantze traumatiko baten eta lana galtzearen ostean, kale gorrian geratu zen. Ez zuen babes-sarerik, ezta aterpe hartzeko lekurik ere.

Ia bi urte kalean biziraun ondoren, egun batean bere jabetza apurrak erreta aurkitu zituen zuhaixken artean. Egun horretan, laguntza eskatzeko erabakia hartu zuen. Caritasen, berriz hasteko lekua aurkitu zuen. Honela, **Aterpe**ra iritsi zen, non, teilatua izateaz gain, behar zuen laguntza emozionala topatu zuen.

Denborarekin, Santi **Lamorus** lanbide-tailerrean sartu zen eta galdutako errutina berreskuratzen hasi zen. Bi urte geroago, **Trintxer-Emeki** egoitza-zentrora iritsi zen, urte askotan izan zuen etxearen antzekoena. Zentroko hezitzaile taldearekin lan eginez, Santik bere burua berreraiki zuen, beldurrak gainditu zituen eta alkohola alde batera utzi zuen. Gaur egun, gainera, **Caritasen boluntario gisa** aritzen da.

13 urteko borroka eta ahaleginen ondoren, Santik bere kabuz bizitzeko prest sentitzen da. Baina bada guztia bertan behera uzteko arriskua dakarren oztopo bat: **ez du ordaindu dezakeen alokairurik aurkitzen.** Santik ez du hiru hilabeteko fidantza ordaintzeko aurrezkirik, ez du kontratu finkorik, ezta berme-emailerik ere.

Baina Santi ez da egoera honi aurre egin behar dion bakarra,

hemen, Gipuzkoan bertan...

Mariame duela 17 urte iritsi zen bere senarrarekin Guineatik. Etenik gabe lan egin dute, ia beti baldintza prekarioetan: kontraturik gabe, orduka, edo gutxieneko soldata baino gutxiago jasoz. Hemen hazi dituzte bere bi alabak. Bizi diren pisuko jabeak bere semearentzat behar du etxea orain eta utzi beharrean daude. 10 hilabete daramatzate bilatzen, baina ez dute ordaindu dezaketen aukerarik aurkitu. Alaba nagusia unibertsitatera joango da datorren ikasturtean, eta **ikusten duten aukera bakarra berriz migratzea da.**

Gaizka drogetan erori zen gaztetan. Egun batean, mugatik pakete bat eramatea onartu zuen eta kartzelan bukatu zuen. Zigorra bete du eta **mundu hori atzean utzi, baina alternatibarik gabe, bere amaren etxera itzultzera behartuta dago.**

Nekane urteak igaro ditu egoitza-zentro tutelatu batean krisi psikiatriko batzuen ondorioz. Bere gurasoak urte horietan hil dira eta, **beharrezko laguntzak jasoz bera kabuz bizitzeko gai den arren, oraindik ezin du etxebizitzarik aurkitu.**

Etxebizitza lortzeko oztopoek itxaropena mantentzea zailtzen diete pertsona askori

...

Zergatik kontatzen dizugu Santi-ren istorioa?

Etxe bat lau horma baino gehiago da. **Etxea egonkortasunaren, babesaren, duintasunaren eta itxaropenaren lekua da.** Bertan hazten dira familiak eta bertatik proiektatzen da etorkizuna. Horregatik, martxo honetan, Caritas Gipuzkoak, Osasuneko Pastoralak eta Espetxe Pastoralak "Itxaropena izateko etxebizitza" lema hautatu dugu.

2025a Itxaropenaren Jubileoa da, eta Francisco aita santuak gogorarazten digunez: *"Emandako itxaropenaren sua piztuta mantendu behar dugu, eta ahal dugun guztia egin behar dugu bakoitzak etorkizunari begiratzeko indarra eta segurtasuna berreskura dezan."* Jarraian dio, *"Hori guztia posible izango da unibertsaltasunaren anaitasunaren zentzua berreskuratzen badugu, eta zabaltzen ari den pobreziaren tragediari begiak ixten ez badizkiogu, milioika gizon, emakume, gazte eta haurrek bizitza duin bat izatea eragozten dien horri."* **Etxebizitza eskuratzeko aukera bermatzea, beraz, justizia, duintasun eta anaitasun kontua da.**

Hala ere, askorentzat (Santi, Mariame, Gaizka eta Nekane barne) eskubide hori lortzea luxua bihurtu da. **Gaur egun Gipuzkoan, ehunka pertsona bizi dira etxebizitza eskuragarri bat aurkitzeko larritasunarekin.**

2024ko bigarren seihilekoan, Gipuzkoako **alokairu** kontratuen batez besteko errenta **1.069,5 €/hilabete** izan zen (Eustat)

2024ko hirugarren hiruhilekoan, Gipuzkoako etxebizitza librearen batez besteko **salneurria 3.586,18 €/m²** izan zen (Eustat)

Honen ondorioz, **etxebizitza eskuratzea Gipuzkoako herritarren %50aren kezka nagusia da,** langabezia eta lan-prekarietatea baino handiagoa, Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako azken Soziometroaren arabera. Beraz, **zer aukera erreala dute bazterketa sozialeko egoeran dauden pertsonek etxebizitza bat eskuratzeko?**

Caritas Gipuzkoak artatutako pertsonen %84 etorkinak dira, eta horrek etxebizitza eskuratzeko zailtasun larrian jartzen ditu. Egoera administratibo irregularrean badaude, ez dute lan-kontraturik eskuratu ahal izango, eta, ondorioz, ezingo dute alokairu baten sarbidea izan. Halaber, ez dute babes-sarerik laguntza emateko. Horrez gain, lan-baldintza prekarioetan ari dira gehienetan: aldi baterako kontratuekin eta soldata baxuagoekin. Egoera hori are nabarmenagoa da emakume etorkinen kasuan, normalean zaintza sektorean lan egiten baitute.

Datu hauen argitan, Pastoral Soziokaritaboak 2024-2028 Bizitegi Bazterketa Larria Prebenitzeko Euskal Estrategiaren ondorio nagusietako bat partekatzen du: **etxebizitza eskuratzeko zailtasunak Euskadin bazterketa sozialaren funtsezko faktore bat dira.**

Egoera honen aurrean, **komunitate kristaua gizarte bidezkoago bat eraikitzera deituta dago, non inor ez den baztertuko etxebizitza duin baten eskubidetik.** Garizuma honetan, Caritas Gipuzkoak, Osasuneko Pastoralak eta Espetxe Pastoralak errealitatea Ebanjelioaren begiekin begiratzera eta gehien behar dutenekin konprometitzera gonbidatzen zaituzte.

Batu zaitez, itxaropena erein dezagun .

...

Zer proposatzen dugu?

ADMINISTRAZIO PUBLIKOEI

✔ **Alokairu publiko eskuragarri eskaintza handitzea**

Eusko Jaurlaritzaren 2021-2023ko Etxebizitza Plan Zuzentzaileak **alokairu babestuko etxebizitzak 3.000 baino gehiago handitzea** proposatu zuen, eta guztira 29.300 etxetara iritsi zen 2023aren amaieran. Funtsezkoa da plan horren lorpenak ebaluatzea eta, beharrezkoa bada, ahaleginak areagotzea etxebizitza eskuragarrien eskaintza are gehiago zabaltzeko.

✔ **Errenta baxuko pertsonei bermeak eskaintzea**

2024-2028 Bizitegi Bazterketa Larria Prebenitzeko Euskal Estrategiak **etxegabetzeen prebentzioa jorratzen du eta errenta baxuko pertsonek etxebizitza eskuratzeko aukera** sustatzen du. Pertsona horiek inolako oztopo larri gabe etxebizitza duin batera iristeko neurri eraginkorrak ezartzea ezinbestekoa da.

✔ **Alokairuaren prezioak arautzea gehiegizko kostuak saihesteko**

Eremu tentsionatu bezala izendatutako bizitegi-merkatuak, Donostian berriki hartutako ekimenean bezala, **alokairu prezioak kontrolatzeko eta egonkortzeko neurriak** hartzea ahalbidetzen du. Araudi hauek modu eraginkorrean ezartzea funtsezkoa da maizterrak abusuzko igoeretatik babesteko.

✔ **Alokairu soziala eta etxebizitza hutsen erabilera sustatzea**

Bizigune bezalako programek **etxebizitza hutsak alokairu sozialera bideratzeko** helburua dute. Ekimen hauek indartu eta sustatzea gomendatzen da, jabeen eta administrazioen arteko lankidetza erraztuz etxebizitza eskuragarrien eskaintza zabaltzeko. Eusko Jaurlaritzaren politikek eta estrategiek babestutako neurri hauek funtsezkoak dira etxebizitza-krisia konpontzeko eta Euskadin pertsona guztiek etxebizitza duina izan dezaten bermatzeko.

GIZARTEARI: ZER EGIN DEZAKEZU ZUK?

✔ **Informatu eta sentsibilizatu**

Errealitate hau partekatu jendartean kontzientzia sortzeko eta informazio faltsua baztertzeko.

✔ **Etxebizitza hutsik baduzu, bizia eman iezaiozu**

Jabea bazara, **etxea segurtasunarekin alokatu** programa sozialen bidez.

✔ **Aldaketarekin bat egin**

Etxebizitza politika justu eta eskuragarrien alde egin dezagun.

✔ **Pastoral soziokaritatiboarekin elkarlanean aritu**

Zure laguntzarekin, benetako irtenbideak bultzatzen jarrai dezakegu Caritas, Osasuneko Pastoraltza eta Espetxe Pastoraltzatik.

2025eko martxoak 23
www.caritasgipuzkoa.org
ITXAROPENA IZATEKO
ETXEBIZITZA
SANTI
prest dago bizitzari berriro ekiteko, 13 urtez zailtasunak izan ondoren.
Baina ahaleginak ahalegin, bere iraganak alokairu bat lortzea eragozten dio.
Caritas
Gipuzkoa
Espetxe Pastoraltza
Donostiako Elizbarrutia
Diócesis de San Sebastián
Pastoral Penitenciaria